# 1914

## Lekeitioko arrantzaleak




Novedades, 1914-5-24

Aurrerago ere erabili izan dugu aldizkari honetako argazkiren bat, baina ez dizuegu oraindik behar den bezala aurkeztu. *Novedades* aldizkaria izan zen Gipuzkoako lehen aldizkari ilustratua. Rafael Picabea enpresariarenak ziren berau eta *El Pueblo Vasco* egunkaria. Antza denez, bi garai bizi izan zituen: lehena, 1909tik 1919ra artekoa Donostian eta azkena 1928tik 29ra Bilbon. Guk Lekeitioko Recreativa Elkartean zer edo zer aurkitu dugu baina urteak falta dira; liburutegidigitala.donostiakultura.com webgunean, berriz, digitalizatuta eta ia osorik duzue bilduma.